

## **OSOKO BILKURA 2021-5-27**

**Organoa:** Udal Plenoa

**Izaera:** Ohikoa

**Deialdia:** Lehena

**Eguna:** 2021-5-27

**Ordua:** Hasiera 18:35etan.

Bukaera 19:18etan.

**Tokia:** Udaletxeko areto nagusia

### **Bertaratuak:**

Alkatea: Izaro Elorza Arregi andrea (EH Bildu)

Zinegotziak:

- .- Xabier Igartua Loidi jauna (EH Bildu)
- .- Anik Maitane Zubizarreta Arturo andrea (EH Bildu)
- .- Iñaki Olalde Alzelai jauna (Bildu)
- .- Maite Anton Leno andrea (EH Bildu)
- .- Iker Oñate Ayastuy jauna (EH Bildu)
- .- Susana Altuna Ugarte andrea (EH Bildu)
- .- Vicente Urrutia Elexpuru jauna (EH Bildu),
- .- Asier Iraeta Izagirre jauna (EH Bildu)
- .- Ainhoa Galdos Olazar andrea (EAJ-PNV)
- .- Miren Amaia Erostarbe Letamendi andrea (EAJ-PNV)
- .- Jon Kepa Guerricagoitia Arrien jauna (EAJ-PNV)
- .- Maria Jose Etxegoien Arzuaga andrea (EAJ-PNV)
- .- Angel Biain Peña jauna ( EAJ-PNV)

1

Idazkaria: Iñigo Roldan Catalan jauna

Kontu-hartzailea: Paskual Elustondo Darpon jauna

### **Ez dira bertaratu:**

- .- Alaitz Kortabarria Igartua jauna (EH Bildu)
- .- Andoni Altuna Uribe jauna (EAJ-PNV)
- .- Nerea Altube Galdos andrea (EAJ-PNV)

### **AZTERGAIAK**

1. Onartzea, hala badagokio, 4.2021 ohiko osoko bilkuraren akta, 2021-04-29koa.
2. Onartzea, hala badagokio, Alkateak egindako proposamena Ogasun Informazio Batzordean 2021eko apirilaren 27an emandako diktamena interes bereziko obrei buruz.
3. Onartzea, hala badagokio, Alkateak egindako proposamena Ogasun Informazio Batzordean 2021eko maiatzaren 11an emandako diktamena interes bereziko obrei buruz.
4. Onartzea, hala badagokio, Alkateak egindako proposamena Ogasun Informazio Batzordean 2021eko apirilaren 27an emandako diktamena Kontu-hartzailetzako gordetako agirien suntsiketari buruz.

5. Oñatiko bake-epaile titularra izateko hautagaia hautatzea eta, hala badagokio, botoen gehiengo osoa lortu duen hautagaia izendatzeko erabakia onartzea.
6. Onartzea, hala badagokio, Alkateak egindako proposamena Pertsonal eta barne antolamendu Informazio Batzordean 2021eko maiatzaren 21an emandako diktamena, 2022rako herriko jai eguna izendatzeari buruzkoa.
7. Onartzea, hala badagokio, Alkateak egindako proposamena\_Sozieconomia eta Turismo Informazio Batzordean 2021eko maiatzaren 12an emandako diktamena Olalan guneko kontratua luzatzeko [REDACTED] eskaerari buruzkoa.
8. Onartzea, hala badagokio, Alkateak egindako proposamena Obraren jarraipenerako batzorde bereziak 2020ko urriaren 6an emandako diktamena Zubikoa kiroldegiko sarbidea kontrolatzeko sistema baten hornidura eta instalazioaren kontratua aldatzekoari buruzkoa.
9. Hala badagokio, presako gaiak.
10. EH BILDU udal taldeak aurkeztu duen mozioa, Palestinako herriarekiko elkartasuna erakusteko.
11. EH BILDU udal taldeak aurkeztu duen mozioa, Kolonbiako herriarekiko elkartasuna adierazteko.
12. Hala badagokio, larrialdi-mozioak.
13. Apirilaren 24 eta maiatzaren 21 bitartean eman diren alkate dekretuen berri ematea, 417 zenbakitik 541 zenbakira.
14. Kontuhartzailearen Erreparo-oharra: Argindar-hornidura kontratuaren berri ematea.
15. 2020ko finantza kontrolaren eta kontu-hartze eginkizunaren laburpen txostenaren berri ematea.
16. 2020ko ekintza planaren berri ematea.
17. 2020ko ekintza planaren egokitasun-txostenaren berri ematea.
18. Galderak eta eskaerak.

**BILERA:****1.- Onartzea, hala badagokio, 4.2021 ohiko osoko bilkuraren akta, 2021-04-29koa.**

Alkateak galdetu du ea Udaltzako kideren batek oharren bat egin behar duen aurreko bilkurako aktari buruz. 2021eko apirilaren 29ko bilkura agiria irakurri eta aztertu ondoren, Udaltzak, aho batez, onartzea erabaki du.

**2.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak egindako proposamena Ogasun Informazio Batzordean 2021eko apirilaren 27an emandako diktamena interes bereziko obrei buruz.**

Idazkariak Alkatetzaren proposamen hau irakurri du –dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

Paskual Elustondo Darpon (Kontuhartzailea) 2021eko apirilaren 27an egindako Ogasun Batzordearen sinatutako aktak dio:

**“3.- Interes bereziko obrak**

Hainbat herritarrek eskatu dute beren eraikinetan leihoak aldatzeko baimenak, eta Zuazola Larraña ikastetxeak, berriz, estalkiaren obren baimena. Aldi berean eskatu dute, 2021eko Zerga Ordenantzak xedatutakoaren arabera Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko zergaren hobaria aplikatu ahal izateko, egin beharreko obrak interes berezikotzat edo udal onurakoak izenda daitezela.

Kontu-hartzaileak zera dio:

a) 2020ko Udal Zerga Ordenantzak EIOZen hobarien 3.puntuan zera dioela:

“3.-15/1989 Foru Arauren “Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga” V. Kapituluaren 5.a artikulua xedatutakoaren arabera, 100eko 95era bitarteko hobaria, eraikuntzak, instalazioak edo obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta daudenean zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik. Izendapena Udal Batzarrak onartu beharko du, eta subjektu pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin.”

b) Oñatiko Udal Arkitektoak Errenta sailari jakinarazi diola, aipatu obrei obra-baimena eman zaiela. Bestalde, Hezkuntza teknikariak igorri du bere txostena.

c) Kontu-hartzailearen iritziz, behean zerrendatzen diren eskatzaileen obrek betetzen dituzte Oñatiko Udaleko 2020ko Zerga-Ordenantzako EIOZ-ren leihotako obren hobarien 3. A) I vi puntuan jasotako baldintzak, hain zuzen, %25eko hobariarenak.

d) Bestalde, Zuazola Larraña ikastetxeko obrak bete betetzen dituzte Oñatiko Udaleko 2020ko Zerga-Ordenantzako EIOZ-ren hobarien 3. A) i puntuan jasotako baldintzak, hain zuzen, %95eko hobariarenak

Ogasuna Batzordeak, ahobatez, honako aldeko irizpena igortzen dio Osoko Bilkurari:

- Udal interes edo erabilera berezikotzat hartzea ondoren zerrendatzen diren eskatzaileen obrak. Ondorioz, zerrendan bertan adierazten den hobaria aplikatuko litzaieke:

IZENA	HELBIDEA	KONTZEPTUA	HOBARIA %
[REDACTED]	[REDACTED]	LEIHOAK	25%
[REDACTED]	[REDACTED]	LEIHOAK	25%
[REDACTED]	[REDACTED]	LEIHOAK	25%
[REDACTED]	[REDACTED]	LEIHOAK	25%

3

## HEZKUNTZA

IZENA	HELBIDEA	KONTZEPTUA	HOBARIA
EUSKO JAURLARITZA HEZKUNTZA SAILA	LARRAÑA AUZOA 16. IES RM ZUAZOLA LARRAÑAKO BHI IKASTETXEA	ESTALKIA BIRGAITU	95%

Azaldutakoagatik, Ogasun batzordeak osoko bilkurari honako hau proposatzen dio:

**LEHENENGOA.-** Udal interes edo erabilera berezikotzat hartzea ondoren zerrendatzen diren eskatzaileen obrak. Ondorioz, zerrendan bertan adierazten den hobaria aplikatuko litzaieke:

IZENA	HELBIDEA	KONTZEPTUA	HOBARIA %
		LEIHOAK	25%
		LEIHOAK	25%
		LEIHOAK	25%
		LEIHOAK	25%

## HEZKUNTZA

IZENA	HELBIDEA	KONTZEPTUA	HOBARIA
EUSKO JAURLARITZA HEZKUNTZA SAILA	LARRAÑA AUZOA 16. IES RM ZUAZOLA LARRAÑAKO BHI IKASTETXEA	ESTALKIA BIRGAITU	95%

**BIGARRENA.-** Erabaki hau interesdunei jakinaraztea.

---

Gaia aztertuta eta kontu-hartzaileak puntua azalduta, Ogasun batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamalau bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

4

### **3.- Onartzea, hala bada gokio, Alkateak egindako proposamena Ogasun Informazio Batzordean 2021eko maiatzaren 11an emandako diktamena interes bereziko obrei buruz.**

Idazkariak Alkatezaren proposamen hau irakurri du –dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena. Adierazi da akats bat dagoela proposamena egiterakoan, ez bait dator bat irizpenarekin. Momentuan bertan akats hori zuzentzen da:

Paskual Elustondo Darpon (Kontuhartzailea), Ogasun batzordeko idazkariak, 2021eko maiatzaren 11an egindako Ogasun Batzordearen ziurtagiriak dio:

“3.- Interes bereziko obrak

Hainbat herritarrek eskatu dute beren eraikinetan obra-baimenak. Aldi berean eskatu dute, 2021eko Zerga Ordenantzak xedatutakoaren arabera Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko zergaren hobaria aplikatu ahal izateko, egin beharreko obrak interes berezikotzat edo udal onurakoak izenda daitezela.

Kontu-hartzaileak zera dio:

a) 2020ko Udal Zerga Ordenantzak EIOZen hobarien 3.puntuan zera dioela:

“3.-15/1989 Foru Arauren “Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga” V. Kapituluaren 5.a artikulua xedatutakoaren arabera, 100eko 95era bitarteko hobaria, eraikuntzak, instalazioak edo obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta daudenean zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik. Izendapena Udal Batzarrak onartu beharko du, eta

subjektu pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin.”

b) 2021-04-22eko Zerbitzu eta Landa Garapen Batzordeko agiriko aldeko txostenak espedientean daude.

c) Kontu-hartzailearen iritziz, behean zerrendatzen diren eskatzaileen obrek betetzen dituzte Oñatiko Udaleko 2020ko Zerga-Ordenantzako EIOZ-ren leihoetako obren hobariaren 3. A) I vi puntuan jasotako baldintzak, hain zuzen, %25eko hobariarenak.

d) Bestalde, Zuazola Larraña ikastetxeko obrak bete betetzen dituzte Oñatiko Udaleko 2020ko Zerga-Ordenantzako EIOZ-ren hobarietan jasotako baldintzak, hain zuzen ere, zerrendan azaltzen direnak.

Ogasuna Batzordeak, ahobatez, honako aldeko irizpena igortzen dio Osoko Bilkurari:

- Udal interes edo erabilera berezikotzat hartzea ondoren zerrendatzen diren eskatzaileen obrak. Ondorioz, zerrendan bertan adierazten den hobaria aplikatuko litzaieke:

IZENA	HELBIDEA	KONTZEPTUA	HOBARIA %
		Leihoak aldatzea	%25
		Baserria eraberritzea	%90
		Bigarren etxebizitza	%50
		Teilatua eraberritzea	%90

5

Azaldutakoagatik, Ogasun batzordeak osoko bilkurari honako hau proposatzen dio:

**LEHENENGOA.-** Udal interes edo erabilera berezikotzat hartzea ondoren zerrendatzen diren eskatzaileen obrak. Ondorioz, zerrendan bertan adierazten den hobaria aplikatuko litzaieke:

IZENA	HELBIDEA	KONTZEPTUA	HOBARIA %
		Leihoak aldatzea	%25
		Baserria eraberritzea	%90
		Bigarren etxebizitza	%50
		Teilatua eraberritzea	%90

**BIGARRENA.-** Erabaki hau interesdunei jakinaraztea.

---

Gaia aztertuta eta kontu-hartzaileak puntua azalduta, Ogasun batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamalau bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotzietatik aho batez onartu dute.

**4.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak egindako proposamena Ogasun Informazio Batzordean 2021eko apirilaren 27an emandako diktamena Kontu-hartzailetzako gordetako agirien suntsiketari buruz.**

Idazkariak Alkatetzaren proposamen hau irakurri du –dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

Paskual Elustondo Darpon (Kontuhartzailea) 2021eko apirilaren 27an egindako Ogasun Batzordearen sinatutako aktak dio:

“4.- Kontu-hartzailetzako gordetako agirien suntsiketa proposamena

Artxibozainak txosten bat egin du, non Kontu-hartzailetzako gordetako agirien suntsiketa proposamena egiten duen. Laburtuz zera dio:

“...Suntsiketarako proposatzen diren serietako balorazioa 2013ko urtarrilaren 28ko eta 2013ko ekainaren 3ko Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren aginduetan jasotzen da; aginduetan agiriak sei, hamabost eta hogeitara suntsitu daitezkeela adierazten da.

**OBJEKTUA ETA ERABILERA EREMUA**

Ondoren jasotzen da agirien deskribapena:

- Ordaintzeko aginduen espedienteak (082 fitxa); “Libramenduak”, “Ordainagiriak”, “Fakturak” eta “Faktura zerrenda” barne

Dokumentu bilduma hauen bitartez egiten dira korporazio lokaletako aurrekontuetan onartutako diru-funtsen irteerak (orokorrak, inbertsioetakoak eta balore askeetakoak).

Kulturako sailburuaren aginduaren arabera: Erabateko suntsiketa hamabost urtera, dagokion ekitaldi ekonomikoa amaitzen den datatik zenbatzen hasita. Ordaintzeko aginduekin batera ez dira sartuko udaleko beste organo batzuek ekoiztako jatorrizko dokumentuak, esaterako, hileko nominen zerrendak. Serie hauek organo ekoizleak kontserbatu beharko ditu. Epea 2002 urtetik 2005 urte artekoak.

- Diru-sartze aginduen espedienteak (083 fitxa); “Kargapenak”, “Kobrantzak”, “Errekurtsoak, Alegazioak eta Itzulketak” eta “Diru-sarrerak” barne.

Dokumentu bilduma hauen bitartez egiten dira korporazio lokaletako aurrekontuetan onartutako diru-funtsen sarrerak (orokorrak, inbertsioetakoak eta balore askeetakoak).

Kulturako sailburuaren aginduaren arabera: Erabateko suntsiketa hamabost urtera, dagokion ekitaldi ekonomikoa amaitzen den datatik zenbatzen hasita. Ordaintzeko aginduekin batera ez dira sartuko udaleko beste organo batzuek ekoiztako jatorrizko dokumentuak, esaterako, hileko nominen zerrendak. Serie hauek organo ekoizleak kontserbatu beharko ditu. Epea 2002 urtetik 2005 urte artekoak.

Bi serietako dokumentuen bolumena 77 kaxatakoa da.

- Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga (093 fitxa); “plusbaliak” bezala ezagutzen direnak.

Zerga hau sortzen da ondasun higiezin bat eskualdatzearen ondorioz edo ondasun horren gainean eskubide errealen bat eratzean edo transmititzean. Jabetza eskualdatzen denean likidatzen da (salerosketa, oinordetzak, dohaintzak).

Kulturako sailburuaren aginduaren arabera: Erabateko suntsiketa hogeitun urtera. Epea 1994 urtetik 2005 urte artekoak.

Serieko dokumentuen bolumena 18 kaxatakoa da.

- Errolda fiskalak (0125 fitxa); Ura likidazioak eta Larreratze kanpaina barne.

Erroldak erregistro fiskalak dira, non udal zergak eta tasak ordaintzera behartuta dauden zergadunak biltzen diren; ordaindu beharreko zerga-egitateak jarraitutasun izaera du.

Kulturako sailburuaren aginduaren arabera: Erabateko suntsiketa bulegoko artxiboan espedientea itxi eta sei urtera. 1 eta 6an amaitzen diren urteen erroldak kontserbatuko dira. Epea 1998 urtetik 2005 urte artekoak

Serieko dokumentuen bolumena 4 kaxatakoa da.

Guztira 99 kaxa, 11 metro lineal.

Guzti honegatik, nik, udal artxibozainak, goian aipatutako agiriren suntsipena proposatzen dut eta Udal plenoari horren onarpena eskatzen diot.

7

Oñatin, 2021eko apirilaren 20an  
Izar Salaberri Iñarra  
Oñatiko Udal artxibozaina.”

Ogasuna Batzordeak, ahobatez, honako aldeko irizpena igortzen dio Osoko Bilkurari:  
- Kontu-hartzaitzako gordetako hainbat agiriren suntsiketa onartzea.“

Azaldutakoagatik, Ogasun batzordeak osoko bilkurari honako hau proposatzen dio:

**LEHENENGOA.-** Kontu-hartzaitzako gordetako hainbat agiriren suntsiketa onartzea.

**BIGARRENA.-** Erabaki hau artxibozainari jakinaraztea.

---

Gaia aztertuta eta kontu-hartzaileak puntua azalduta, Ogasun batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamalau bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotzietatik aho batez onartu dute.

**5.- Oñatiko bake-epaile titularra izateko hautagaia hautatzea eta, hala badagokio, botoen gehiengo osoa lortu duen hautagaia izendatzeko erabakia onartzea.**

Alkate-udalburuaren 2021ko maiatzaren 17ko proposamenak dio:

**Aurrekariak**

**Lehenengoa.-** EAEko Auzitegi Nagusiko Gobernu Idazkaritzak, 2021eko otsailaren 18ko ofizioaren bidez (2021/02/25eko sarrera-erregistroa, 704 zk.), aipatutako organoaren erabakia jaso zuen. Bertan Oñatiko Bake-Epaile titularra eta Ordezkoa hautatzeko prozesua egiteko eskatzen zuen Botere Judizialeko Lege Organikoa eta Bake Epaileei buruzko araudiak xedatutakoaren arabera.

**Bigarrena.-** Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko martxoaren 18an egindako bileran, besteak beste, Oñatiko Bake epailearen eta haren ordezkoaren izendapen prozesua martxan jartzeko akordioa hartu zen.

**Hirugarrena.-** 2021eko apirilaren 6ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (61. Zk.), bake-epaile, titular eta ordezko karguak betetzeko eskabideak aurkezteko epea irekitzen zuen iragarkia argitaratu zen. Aldi hori 2021/05/04ean amaitu zen.

Iragarkia, halaber, Oñatiko Bake Epaitegira bidali zen, eta udaletxeko iragarki-taulan argitaratuta egon zen, eskabideak aurkezteko epea amaitu arte.

**Laugarrena.-** Udal Erregistroak emandako datuen arabera, emandako epearen barruan, jarraian adieraziko den pertsonak eskaera egin du, eta aurkeztutako dokumentazioak lege ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatu da:

- María del Carmen Telleria Rodriguez (2021eko apirilaren 30eko 1654. sarrera-erregistroa). 2021eko maiatzaren 14an dokumentazio gehigarria aurkeztu zuen (sarrera-erregistroa 1818 zenbakiarekin).

Ondorioz, bake-epaile titularren kargurako hautagaitza bakar bat baino ez dago.

Udaleko idazkariaren 4/2021 txostena, maiatzaren 17koa dago espedientean.

**Zuzenbideko oinarriak.**

**Lehenengoa.-** Aplikatu beharreko legedia:

- 3/1995 Erregelamendua, ekainaren 7koa, bake-epaileena.
- 6/1985 Lege Organikoa, uztailaren 1ekoa, Botere Judizialarena.
- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea.
- 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun eragingarriakoa.

**Bigarrena.** – Dagokion justizia-auzitegi nagusiko gobernu-salak izendatuko ditu bake-epaileak eta haien ordezkoak, lau urterako.

Bake-epaile izendatu ahal izango dira, bai titularrak bai ordezkoak, Zuzenbidean lizentziatuak izan ez arren, Botere Judizialaren Lege Organikoan karrera judizialean sartzeko ezarritako baldintzak betetzen dituztenak, salbu eta kargurako eragozpen fisiko edo psikikoak badituzte, eta ez badaude funtzio judizialak betetzeko aurreikusitako ezgaitasun edo bateraezintasuneko ezein



kausatan sartuta, salbu eta lanbide- edo merkataritza-jarduerak egiteko ( 102 Botere Judizialaren Lege Organikoa eta Bake Epailen Erregelamenduaren 13. artikulua).

**Hirugarrena.-** Agintaldian, BJLOren 398. artikulutik 397.era bitartekoetan araututako bateraezintasun eta debekuen araubidearen mende egongo dira bake-epaileak, aplikagarri zaien guztian. Jarduera hauek bateragarriak izango dira:

— Irakaskuntzan edo ikerketa juridikoan aritzea.

— Edozein motatako aholkularitza juridikorik eskatzen ez duten lanbide- edo merkataritza-jarduerak egitea, haien izaeratik haien inpartzialtasuna edo independentzia eragotzi edo kaltetu ezin dutenak eta eginbehar judizialak zorrotz betetzea eragotzi ezin dutenak.

Bake-epaileek ezin izango dute alderdi politikoetako edo sindikatuetako kide izan, ezta horien zerbitzupeko enplegurik izan ere, eta debekatuta izango dituzte Botere Judizialaren Lege Organikoaren 395. artikulua ezartzen du hori guztia. Bake Epailen Erregelamenduaren 23. artikulua.

**Laugarrena.-** Udaleko osoko bilkurak hautatuko ditu bake-epaileak eta haien ordezkioak, kideen gehiengo osoaren aldeko botoarekin, legezko baldintzak betetzen dituzten eta hala eskatzen duten pertsonen artetik.

Hautagarrik ez badago, Osoko Bilkurak askatasunez aukeratuko du, prozedura-baldintza berak betez (BJLOren 101. artikulua eta Bake Epailen Erregelamenduaren 4. eta 6. artikulua).

Udaleko osoko bilkurak erabakia onartu ondoren, lehen auzialdiko eta instrukzioko epaileari bidaliko zaio, eta hark Auzitegi Nagusiko gobernu-salari helaraziko dio. Udalaren erabakiarekin batera, honako alderdi hauek jasotzen dituen ziurtagiria aurkeztuko da:

— Hautaketa gertatu zen inguruabarren aipamen zehatza.

— Legeak eskatzen duen quoruma bete dela berriaz aipatzea.

— Hautatuen identifikazio-datuak eta gaitasun- eta bateragarritasun-baldintzak.

Justizia Auzitegiko gobernu-salak uste badu Udalak hautatutako pertsonak legeak eskatzen dituen gaitasun eta hautagarritasun baldintzak betetzen dituztela, kasuan kasuko izendapenak egingo ditu, eta Probintziako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko aginduko du; horren berri emango die Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari eta barrutiko lehen auzialdiko eta instrukzioko epaileari.

Udalak aukeratutako pertsonak bateraezintasun arrazoiren bat badu, gobernu salak ez du izendapenik egingo proposatutakoak gaitasunari buruzko legezko baldintzak betetzen ez baditu, eta zortzi eguneko epea emango dio jarduera bateraezina utzi duela egiazta dezan. Hori egiaztatzen ez badu, karguari uko egiten diola ulertuko da.

Bake epaitegi batean lanpostua hutsik geratzen denetik hiru hilabeteko epean Udalak ez badu egiten aurreko zenbakietan aurreikusitako proposamena, justizia-auzitegi nagusiko gobernu salak bake-epailea izendatuko du. Berdin jokatuko da Udalak proposatutako pertsonak, gobernu sala beraren iritziz eta Fiskaltzari entzun ondoren, legez eskatutako baldintzak betetzen ez dituenean.

Bake-epaileak izendatzeko erabakien aurka, gora jotzeko errekurtsioa edo berrikusteko errekurtsioa aurkez daiteke Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Osoko Bilkuran, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak ezarritako epe, arrazoi eta moduetan.

Bake-epaileek euren kargua hartuko dute, izendapena probintziako aldizkari ofizialean argitaratu eta hurrengo hogeitun egun naturalen barruan, barrutiko lehen auzialdiko eta instrukzioko epailearen aurrean zin edo promesa egin ondoren. Aurretik bake-epaile gisa aurkeztu dutenek ez dute zin edo promesa egiteko betebeharririk izango. Agintaldiaren iraupena izendapena probintziako aldizkari ofizialean argitaratzen den egunetik aurrera zenbatuko da (Bake Epaileen Erregelamenduaren 20 eta 21.2 artikulua ).

Azaldutakoagatik, Pertsonal eta Barne Antolaketa Batzordean gaia aztertu ondoren, osoko bilkurari honako hau proposatzen zaio:

**Lehenengoa.-** Udaltzaren Osoko Bilkurari bozka ematea bake-epaile titularren kargua betetzeko hautagai-zerrenda hau:

Aurkeztutako hautagaitza: Maria del Carmen Telleria Rodriguez.

**Bigarrena.-** Botoen gehiengo osoa lortu duen hautagaia izendatzea bake-epaile titular, eta, aurkeztutako dokumentazioan oinarrituta, legeak eskatzen dituen gaitasun eta bateragarritasun baldintzak betetzen dituela aldarrikatzea.

**Hirugarrena.-** Erabaki honen ziurtagiria helaraztea, ekainaren 7ko 3/1995 Erregelamenduaren 7.2 artikuluan aipatzen diren baldintzekin, Bergarako Epaitegiari eta Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Gobernu Idazkaritzari.

Gaia aztertuta eta Pertsonal eta Barne Antolaketa Batzordean hautagai bakarraren eskaera ikusita, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamalau bertaratuta, alkateak bozketa agindu du.

Aurkeztutako hautagaitza: Maria del Carmen Telleria Rodriguez 14 boto.

Aipatutako hautaketa-bozketaren emaitza ikusita, Udaltzaren osoko bilkurak, hamalau botorekin, Udaltzako kideen legezko kopuruaren gehiengo osoa osatzen duena, honako erabaki hau hartu zuen:

### AKORDIOA

**Lehenena.-** María del Carmen Telleria Rodriguez andrea (NAN: [REDACTED]), [REDACTED] jaioa, Helbidea: [REDACTED], harremanetarako telefonoa: [REDACTED]; helbide elektronikoa: [REDACTED]. legeak eskatzen dituen gaitasun-eta bateragarritasun-baldintzak betetzen ditu eta aldekoen gehiengo osoaren botoekin bake epaile izendatzea.

**Bigarrena.-** Erabaki honen ziurtagiria helaraztea, ekainaren 7ko 3/1995 Erregelamenduaren 7.2 artikuluan aipatzen diren baldintzekin, Bergarako Epaitegiari eta Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Gobernu Idazkaritzari.

**6.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak egindako proposamena Pertsonal eta barne antolamendu Informazio Batzordean 2021eko maiatzaren 21an emandako diktamena, 2022rako herriko jai eguna izendatzeari buruzkoa.**

Idazkariak Alkatezaren proposamen hau irakurri du –dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

Gemma Urbina Vinuesa (Giza Baliabide teknikaria) 2021eko maiatzaren 21an egindako Pertsonal eta Barne Antolamendu batzordearen sinatutako aktak dio:

“2022rako Oñatiko herriko jai eguna izendatzeko proposamena.

Maiatzaren 20ko EHAAn argitaratu da Euskal Erkidegorako Lanerako Jaiegunen Egutegi Ofiziala 2022.urterako. Bertan, dioenez 2022an urte osoko igandeak eta jarraian adierazten diren egunak lan-ondorioetarako baliogabetzat hartuko dira, ordaindu egingo dira eta ez dira berreskuratu beharko:

- .- Urtarrilaren 1a, Urteberri eguna.
- .- Urtarrilaren 6a, Errege Magoen eguna.
- .- Apirilaren 14a, Ostegun Santua.
- .- Apirilaren 15a, Ostiral Santua.
- .- Apirilaren 18a, Pazko Astelehena.
- .- Uztailaren 25a, Santiago Apostolua.
- .- Abuztuak 15a, Ama Birjinaren Jasokundeak.
- .- Irailaren 6a, Juan Sebastian Elkano kapitain zela munduari bira eman izanaren V. mendeurrena
- .- Urriaren 12a, Espainiako Jai Nazionala.
- .- Azaroaren 1a, Santu Guztien Eguna.
- .- Abenduaren 6a, Konstituzio Eguna.
- .- Abenduaren 8a, Andre Maria Sortzez Garbiaren eguna.

11

Bestalde, tokian tokiko jaietako bi egun ere jaiegun izango dira, egun horietako bat udaletako osoko bilkurek proposatuko dute eta bestea Foru Aldundiak. Horretarako Udalek hilabeteko epea dute maiatzaren 4ko 132/2021eko Dekretua argitara eman den egunetik (maiatzaren 20tik)

2022ko egutegia aztertu ondoren, San Migel eguna hau da irailaren 29a osteguna izango da eta San Inazio eguna (Gipuzkoako patroia eta Aldundiak izendatzen duen jai eguna) astelehena

Gaia azterturik, Pertsonal eta barne antolamendu batzordeak aho batez aldeko irizpena ematen du eta osoko bilkurari honako hau proposatzen dio:

Lehenengoa: 2022rako herriko jai eguna izendatzea, irailaren 29a ( San Migel eguna)

Bigarrena: Honen berri Lan eta Justizia saileko Gipuzkoako Lurralde ordezkari ematea 132/2021eko maiatzaren 4ko Dekretuak xedatzen duena betez.“

Azaldutakoagatik, pertsonal eta barne antolamendu batzordeak osoko bilkurari honako hau proposatzen dio:

**LEHENENGOA.-** 2022rako herriko jai eguna izendatzea, irailaren 29a ( San Migel eguna).

**BIGARRENA.-** Honen berri Lan eta Justizia saileko Gipuzkoako Lurralde ordezkariari ematea 132/2021eko maiatzaren 4ko Dekretuak xedatzen duena betez.

---

Gaia aztertuta, eta pertsonal eta barne antolamendu batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamalau bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

**7.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak egindako proposamena Sozioekonomia eta Turismo Informazio Batzordean 2021eko maiatzaren 12an emandako diktamena Olalan guneko kontratua luzatzeko [REDACTED] eskaerari buruzkoa.**

Idazkariak Alkatearen proposamen hau irakurri du –dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

Unai Kortabarria Errastiren (Enplegu teknikaria) 2021eko maiatzaren 12an egindako Sozioekonomia eta Turismo batzordearen sinatutako aktak dio

Esp. Zb.: S005/2021/OZ

[REDACTED]: Olalan guneko kontratua luzatzeko eskaera.

[REDACTED] Olalan guneko kontratua luzatzeko eskaera egin zuen 2021eko apirilaren 23an.

Ordutegi partekatuan jarraituko du, arratsaldeko ordutegian, hau da, astelehenetik ostiralera 14:00etatik 20:00etarako ordutegi tartean.

Alokairu kontratua 2021eko maiatzaren 1an hasi 2022ko apirilaren 30ean amaituko litzateke. Kontratuen amaieran, itxaron zerrendarik ez balego, eskatzaileak alokairu kontratua berritzeko aukera izango du, urtez-urte.

Ordaindu beharreko hileroko kuota 40€ + BEZ izango da.

Gai aztertuta, batzordeak ondorengo erabaki proposamen egiten dio Tokiko Gobernu Batzordeari eta Osoko Bilkurari:

LEHENENGOA.- [REDACTED] egindako kontratua luzatzeko eskaera onartzea goian zehaztutako baldintzetan.

BIGARRENA. Erabaki hau interesdunei jakinaraztea.”

Bidaurreta Dorreko CoWork Gunearen Araudia 2017ko urriaren 20ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (201 zenbakia). Bere 4. Artikuluan honako hau dio:

*“CoWork gunea erabiltzeko eskaerak araudi honen 6. Artikuluan ezarritako balioespen-irizpideen arabera aztertu eta ebaluatuko ditu Oñatiko Udaleko Sozioekonomia Batzordeak. Behin aztertuta eta ebaluatuta, Sozioekonomia Batzordearen irizpenarekin batera, Oñatiko Udaleko Osoko Bilkurara helaraziko dira berari buruz erabakia har dezan.”*

Gaia azterturik, eta Sozioekonomia eta Turismo batzordearen aldeko irizpena izanik, osoko bilkurari honako hau proposatzen dio:

**LEHENENGOA.-** [REDACTED] egindako kontratua luzatzeko eskaera onartzea goian zehaztutako baldintzetan.

**BIGARRENA.-** Erabaki hau interesdunei jakinaraztea

---

Gaia aztertuta, eta Sozioekonomia eta Turismo batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamalau bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

**8.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak egindako proposamena Obraren jarraipenerako batzorde bereziak 2020ko urriaren 6an emandako diktamena Zubikoa kiroldegiko sarbidea kontrolatzeko sistema baten hornidura eta instalazioaren kontratua aldatzekoari buruzkoa.**

Idazkariak Alkatezaren proposamen hau irakurri du –dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

Oskar Carrascal Gonzalez, Zubikoa kiroldegiko zuzendariaren, 2021eko maiatzaren 19ko proposamena ikusita:

Zubikoa kiroldegiko sarbidea kontrolatzeko sistema baten hornidura eta instalazioaren kontratua aldatzea

**AURREKARIAK**

*2019ko otsailaren 28ko Udal Plenoaren erabakiz Zubikoa Kiroldegi zaharra eraberritzeko eta handitzeko proiektuaren lanak lizitazio publikora ateratzea erabaki zen deialdia eta baldintza zerrenda onartuz. Baldintza zerrenda eta deialdia Oñatiko Udaleko Kontratazio atarian 2019ko martxoaren 26an eta DOUE-n apirilaren 3ko dataz argitara eman ziren. Lanak 5 zatitan lizitatzeko loteak berezitu dira baldintza zerrendan, honakoak, alegia:*

- 1 Zatia.- Lote orokorra.
- 2 Zatia.- Sauna eta igerilekuen iragazpena.
- 3 Zatia.- Klimatizaioz, eguzki energia eta gasa.
- 4 Zatia.- T.E eta TB, eta instalazio bereziak.
- 5 Zatia.- Sarbide kontrola.

5. Zatia “Sarbide kontrola” zatia lizitazioaren ezaugarri nagusiak honakoak dira:

- Hornidura-kontratuaren gehieneko aurrekontua 20.226,33 €.+ 4.247,53 € BEZa, guztira **24.473,86 €**
- Prozedura irekia arrunta
- Ez da lotetan zatitu
- Adjudikatzeko irizpideak: Matematika formulen bidez neurtu daitezkeenak soilik
  - Eskaintza ekonomikoa: 60 puntu
  - Bermearen epea: 10 puntu
  - Balio-judizio bati lotutako irizpideak: 30 puntu
- Instalazioa hornitzeko eta gauzatzeko gehieneko epea 1 hilabete

*Proposamenak aurkezteko epea maiatzaren 3ra arte egon ondoren, enpresa bakar baten proposamena jaso zen, OMESA S.L.Urena. Kontratazio mahaiaren proposamena kontuan hartuz, Udal Plenoak aho batez aipatutako enpresaren aldeko esleipena egitea, enpresari jakinaraziz eta DOUE-n argitara emanez.*

Kontratazio Mahaiaik hala eskatuta, Alkateak adjudikazio kontratua 2019ko uztailearen 22an sinatu zuen.

Adjudikazioduna	Eskaintza ekonomikoa	Garantia epea	Hornidura epea
<b>OMESA S.L.U</b>	<b>22.596,75 €</b>	<b>2 urte</b>	<b>1 hilabete</b>

#### AURREIKUSI GABEKO LANEN AZALPENA

Aurreikusi gabeko lan batzuk egin beharra ikusi da, azpiegitura honek erabiltzaileen sarrerako kontrolaren helburua osotasunean bete dezan. Horrela bada, honako aldaketak eta osagarriak kontratatzea proposatzen da:

- Kiroldegiko sarrerako kontrolerako display osagarriak: 1.172 €
- Norabide bakarreko atea, itxiera automatikokoarekin eta moteltze sistemarekin (PM402): 1.620 €

Aipaturiko hornidura eta instalazioaren zenbatekoa, BEZa barne 3.378,32 € da, hau da, adjudikatutako prezioetik %14,95ko igoera.

Lan zuzendaritza eta Zubikoa kiroldegiko zuzendariaren kontratuaren aldaketa proposamena baloratu ondoren, "Obraren jarraipenerako batzorde berezia"-k 2020ko urriaren 6an eginiko bilkuran onartu du eskaera.

#### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Kontrata arautzen duen baldintza pleguaren 24.14. atalaren arabera, administrazioak kontratua aldatu ahal izango du interes publikoko arrazoiengatik SPKLren 203. artikulua arabera eta 242. artikuluan jasotako kasuetan eta baldintzetan, betiere horrekin ez badira aldatzen lizitazioaren eta adjudikazioaren funtsezko baldintzak.

Aipatu lanen interes publikoa ukaezina da, hau da, kiroldegiko erabiltzaileen sarrera kontrola, eta lizitazioaren funtsezko baldintzak ez dira aldatzen.

Proposatzen diren aparteko lanak egitea, kontrata arautzen duen baldintza pleguan aurreikusi bada ere, SPKLren 204. artikuluan ezarritako modu eta edukiarekin bat ez datorrenez, SPKLren 205. artikulua xedatutakoari jarraitu beharko dio.

SPKLren 205. artikulua arabera, administrazio-klausula berezien agirian aurreikusi gabeko aldaketak, edo aurreikusitakoak izanik ere aurreko artikuluan ezarritakoari egokitzen ez zaizkionak, honako baldintza hauek betetzen dituztenean egin ahalko dira soilik:

1. *Mugatuta egotea bera beharrezko egiten duen kausa objektiboari erantzuteko zorrozki ezinbestekoak diren aldaketak sartzera.*
2. *Aparteko lan horiek justifikazioa izatea ondoren zerrendatzen diren kasuetako batean:*
  - a.1.- *Kontratatuz aldatzea ezinezkoa izatea arrazoi ekonomiko edo teknikoengatik.*
  - a.2.- *Kontratuaren aldaketak kontratuaren diru-zenbatekoan dakarren aldaketak ez gairiditzea, kontratuaren aldaketa horrekin bakarrik edo artikulua honen arabera adostutako beste aldaketa batzuekin batera, hasierako prezioaren % 50a BEZik gabe.*

Aurreikusten diren aparteko lanek lizitazio aurrekontutik **%14,95** ko igoera eragin dute, beraz, SPKLren 205. artikulua xedatutakoa betetzen du.

ESKAERA

SPKLren 191.1 artikulua xedatutakoaren arabera, *prerogatibei buruzko erabakiak hartzeko bideratzen diren prozeduretan, kontratistari entzutea egin beharko da.*

Horrenbestez, aparteko lanak onartu aurretik OMESA S.L.U. enpresari entzun egin beharko zaio.

2021eko maiatzaren 19a  
Oskar Carrascal Gonzalez  
Zubikoa kiroldegiko zuzendaria

X

Honen bidez, aparteko lanak egiteko proposamena onartzen da.

████████████████████

OMESA S.L.U.

Zubikoa kiroldegiko zuzendariak, 2021eko maiatzaren 19an egindako txostenean azaldu duen moduan, 2.792,00 € da, BEZik gabe, lan gehigarri hauen aurrekontua, BEZaren % 21 batuz gero **3.378,32 €**.

Kontratatik obra zuzendariak proposaturiko lan gehigarriak eta bere prezioa onartu du.

Horregatik guztiagatik, honako hau

15

**PROPOSATZEN DUT**

**Lehenengoa.-** Oñatiko Zubikoa kiroldegiko sarrera kontrolatzeko sistema baten hornidura eta instalazioaren kontratua aldatzea, lizitazioaren unean aurreikusi gabeko eta gerora sortutako beharreetatik proposatua (SPKLren 205.2.b artikulua).

**Bigarrena.-** Aldaketa kontratuak suposatzen duen gastu igoera onartzea, **3.378,32 €** BEZ barne.

**Hirugarrena.-** Erabaki hau kontratista interesdunari jakinaraztea, dagokion ondorioak izan ditzan.

**Laugarrena.-** Erabaki hau kontu-hartzaileari jakinaraztea.

Gaia azterturik, eta Obraren jarraipenerako batzorde bereziak 2020ko urriaren 6an eginiko bilkuran onartu zen aldeko irizpena izanik, osoko bilkurari honako hau proposatzen zaio:

**Lehenengoa.-** Oñatiko Zubikoa kiroldegiko sarrera kontrolatzeko sistema baten hornidura eta instalazioaren kontratua aldatzea, lizitazioaren unean aurreikusi gabeko eta gerora sortutako beharreetatik proposatua (SPKLren 205.2.b artikulua).

**Bigarrena.-** Aldaketa kontratuak suposatzen duen gastu igoera onartzea, **3.378,32 €** BEZ barne.

**Hirugarrena.-** Erabaki hau kontratista interesdunari jakinaraztea, dagokion ondorioak izan ditzan.

**Laugarrena.-** Erabaki hau kontu-hartzaileari jakinaraztea.

---

Gaia aztertuta, eta Obraren jarraipenerako batzorde bereziaren irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamalau bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

### **9.- Hala badagokio, presako gaiak.**

Alkatearen eskariz, presazko bi gai gai-zerrendan sartzeko behar diren urratsak egin ondoren, hau da, gaia arrazoitzea eta bertaratuen gehiengoaren botoa lortzea, gai hauek zerrendan sartzea erabaki da 14 boto aldekoekin (9 EH BILDU + 5 EAJ).

### **9.1.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak egindako proposamena Ogasun Informazio Batzordean 2021eko maiatzaren 25an emandako diktamena interes bereziko obrei buruz.**

Paskual Elustondo Darpon (Kontuhartzailea) 2021eko maiatzaren 25an egindako Ogasun Batzordearen sinatutako aktak dio:

“3.- Interes bereziko obrak

Hainbat herritarrek eskatu dute beren eraikinetan obra-baimenak. Aldi berean eskatu dute, 2021eko Zerga Ordenantzak xedatutakoaren arabera Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko zergaren hobaria aplikatu ahal izateko, egin beharreko obrak interes berezikotzat edo udal onurakoak izenda daitezela.

Kontu-hartzaileak zera dio:

a) 2020ko Udal Zerga Ordenantzak EIOZen hobarien 3.puntuan zera dioela:

“3.-15/1989 Foru Arauren “Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga” V. Kapituluaren 5.a artikulua xedatutakoaren arabera, 100eko 95era bitarteko hobaria, eraikuntzak, instalazioak edo obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta daudenean zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko- artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik. Izendapena Udal Batzarrak onartu beharko du, eta subjektu pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin.”

b) Espedientean dago dokumentazio dena: Eskakerak, obra-baimenak, aurrekontuak eta abar.

c) Kontu-hartzailearen iritziz, behean zerrendatzen diren eskatzaileen obrek betetzen dituzte Oñatiko Udaleko 2020ko Zerga-Ordenantzako EIOZ-ren leihoetako obren hobarien 3. A) I vi puntuan jasotako baldintzak, hain zuzen, %25eko hobariarenak.

d) Eguzki-indarra autokontsumorako bideratzeko obrek betetzen dituzte Oñatiko Udaleko 2020ko Zerga-Ordenantzako EIOZ-ren hobarietan 3 A) 2 VII puntuan jasotako baldintzak, hain zuzen, %95eko hobariarenak.

Ogasuna Batzordeak, ahobatez, honako aldeko irizpena igortzen dio Osoko Bilkurari:

- Udal interes edo erabilera berezikotzat hartzea ondoren zerrendatzen diren eskatzaileen obrak. Ondorioz, zerrendan bertan adierazten den hobaria aplikatuko litzaieke:

### **LAN BAIMENA LEIHOAK**



IZENA	HELBIDEA	KONTZEPTUA	HOBARIA %
[REDACTED]	[REDACTED]	LEIHOAK	25%
[REDACTED]	[REDACTED]	LEIHOAK	25%

**EGUZKI INDARRA AUTOKONTSUMORAKO OBRAK**

IZENA	HELBIDEA	KONTZEPTUA	HOBARIA %
[REDACTED]	[REDACTED]	Instalazio fotoboltaikoa	95%
[REDACTED]	[REDACTED]	Instalazio fotoboltaikoa	95%

Azaldutakoagatik, Ogasun batzordeak osoko bilkurari honako hau proposatzen dio:

**LEHENENGOA.-** Udal interes edo erabilera berezikotzat hartzea ondoren zerrendatzen diren eskatzaileen obrak. Ondorioz, zerrendan bertan adierazten den hobaria aplikatuko litzaieke:

**LAN BAIMENA LEIHOAK**

IZENA	HELBIDEA	KONTZEPTUA	HOBARIA %
[REDACTED]	[REDACTED]	LEIHOAK	25%
[REDACTED]	[REDACTED]	LEIHOAK	25%

**EGUZKI INDARRA AUTOKONTSUMORAKO OBRAK**

IZENA	HELBIDEA	KONTZEPTUA	HOBARIA %
[REDACTED]	[REDACTED]	Instalazio fotoboltaikoa	95%
[REDACTED]	[REDACTED]	Instalazio fotoboltaikoa	95%

**BIGARRENA.-** Erabaki hau interesdunei jakinaraztea.

---

Gaia aztertuta eta Ogasun batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamalau bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

**9.2.-Onartzea, hala badagokio, Alkateak egindako proposamena kirol Informazio Batzordean 2021eko maiatzaren 18an emandako diktamena Aloña Mendi Kirol elkarteari diru-laguntza izendun eta zuzena emateko hitzarmen arautzailea onartzeari buruzkoa.**

Idazkariak Alkatezaren proposamen hau irakurri du –dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

Oskar Carrascal Gonzalez, Kirol Teknikaria eta Kirol Batzordearen idazkaria, ziurtatze du 2021eko maiatzaren 18ko dataz Kirol Batzordeak honako **DIKTAMENA** eman zuela:

“2021eko maiatzaren 18an egindako Kirol batzordean honako gaia landu eta diktamintatu zen:

2021. urteko Udal eta elkartearen arteko lankidetzaren hitzarmena: dirulaguntza I. zatiaren ordainketa

Udala eta kirol elkarteko ordezkariak bi entitateen arteko lankidetzari jarraipena ematea adostu dute, elkarteak, udalaren laguntzarekin, interes publikoko kirol egitasmoak sustatzen jarrai ditzan.

Horrela bada, Udal kirol batzordeak honakoa onartu du:

#### LEHENA

Lankidetzaren hitzarmenak jasotzen dituen dirulaguntza lerroetako diru-kopuruetan aldaketarik ez egitea. Horrela bada, honako dirulaguntza lerroak proposatzen dira:

- Ohiko jardunagatik dirulaguntza: 65.405,09 euro
- Ezohiko kirol jardueretarako dirulaguntza: 21.830,45 euro
- Bulego eta administrazio gastutarako dirulaguntza: 6.389,23 euro
- Eskalada ekintzetarako dirulaguntza: 2000 € euro
- Desplazamenduetarako dirulaguntza: 1000 € euro

#### BIGARRENA

Lerro ezberdinetako dirulaguntza kontzeptuei dagokionez, lankidetzaren agirian jasotzen den 4.5. Eskalada ekintzetarako dirulaguntza lerroan honako aldaketak jasotzen dira, 2020ko lankidetzaren ekintzekin alderatuz:

- Oñatiko boulder kirol txapelketa antolatzea
- Eskalada kirol eskolari laguntza teknikoa ematea
- Araotzeko eskalada-bideen erregistroa eguneratua osatu eta krokisak egitea
- Araotz eskalada-guneen txukuntze lanak egin eta antolatu
- Segurtasun neurrien gaineko oinarrizko formakuntza saioak antolatzea
- Rokodromoa eta boulderreko presak urtean behin garbitzea
- Oñatiko Eskola Kirola eta Hezkuntza Elkartearekin batera. Eskalada topaketa bat antolatzea Eskola Kirola programaren baitan.

#### HIRUGARRENA

Dirulaguntzen ordainketa ondorengo epeetan ematea: urteko lehen lauhilabetean dirulaguntzaren %60a eta bigarrean %40a.

#### LAUGARRENA

Agiriaren 4.7 Zubikoa kiroldegia erabiltzeagatik dirulaguntza kontzeptuan jasotzen den dirulaguntza elkarteak kobratzen ez duen arren, erabilera kostea Udal gastu aurrekontuetako IV. Kapituluan zenbatzen da.

**BOSTGARRENA**

Agiriaren "Aloña Mendi K. E.-aren betebeharrak Udalarekiko" 7. Atalean honako eskakizuna gehitzea: Kirol elkartean haur, gazte eta nerabeekin kirol jarduera teknikoa, nahiz bestelako jarduera osagarriak egiten dituzten pertsonak (entrenatzaileak, zaintzaileak, fisioterapeutak, etabar.), haurtzarora eta adoleszentiaren babes sistema aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2015 Legeko 8.artikuluan jasotzen den sexu delitugileen Erregistro Zentraleko agiri negatiboa izatea.

**SEIGARRENA**

lankidetzaren hitzarmena onartzearekin bat, dirulaguntza lehen zatiaren ordainketa egitea, hots, dirulaguntzaren %60a: 57.975 €."

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak (22.2 a eta 28 artikulua) eta hura garatzen duen Erregelamenduak (887/2006 Errege Dekretua) eta Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak (14. Artikuluak) ezarritakoa kontuan hartuta.

38/2003. Legean nabarmentzekoa da artikulua hau:

30.2 artikulua: *"Justifikazio-kontua ematea onuradunaren edo erakunde laguntzailearen nahitaezko egintza da, eta bertan sartu behar dira, aitortzailearen erantzukizunpean, gastuaren egiaztagiriak edo diru-laguntzaren xedea bete dela egiaztatzeko balio juridikoa duen beste edozein dokumentu. Justifikazio-kontuaren forma eta hura emateko epea diru-laguntza publikoak arautzen dituzten oinarrietan zehaztuko dira."*

Gainera Ordenantza orokorraren 18.2 Artikuluak dio:

*"Diru-laguntza erregulatzeko oinarriek xedaturikoaz gain, diru-laguntza egiaztatzeko ondoko dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte:*

*a) Urtean metatutako Udal diru-laguntzak 60.000 eurotik gorakoak direnean: Finantza egoerak aurkeztu behar dira (egoeraren balantzea eta galera eta irabazien kontua), enpresa eskudunak auditaturik, dagokion erregistro ofizialean behar bezala izena emanda, eta horietan aipatu behar dira gastuak eta diru sarrerak, erakundearen jarduera globalarena nahiz udal dirulaguntzaren xede den ekintza edo ekintza berezi(ar)ena.*

*Halaber, diru-laguntza xede duten ekintzen azalpen memoria bat aurkeztu behar da, egin diren ekintzena, eta horrekin batera balorazio bat, lortu diren emaitzena."*

Jasota dago kreditu egokia eta nahikoa dagoela. Partida zenbakiak hauek dira:  
1.0700.481. 341.00.03 2021(282), "Aloña-Mendi KE-ari dirulaguntza"  
1.0700.481.341.00.01 2021 (281), "Aloña-Mendi Kea kiroldegia erabiltzeagatik dirulaguntza"

Gaia aztertutik, eta Kirol batzordearen aldeko irizpena izanik, osoko bilkurari honako hau proposatzen zaio:

**Lehenengoa.-** Aloña Mendi Kirol elkarteari diru-laguntza izendun eta zuzena emateko hitzarmen arautzailea onartzea. Diru-laguntza hori Oñatiko Udalaren 2021ko aurrekontu orokorretan dago jasota.

**Bigarrena.-** 96.624,77 euroko gastua onartzea, kontuan hartuta diru-laguntza emateko ezinbestekoa dela kreditu egokia eta nahikoa egotea diru-laguntza emateko ebazpena emateko unean.

**Hirugarrena.-** 115.494,23 euroko gastua onartzea, Zubikoa kiroldegia erabiltzeagatik.

**Laugarrena.-** Diru-laguntzen Datu Base Nazionalen (DNS) argitaratzea erabakitzea.

**Bostgarrena.-** Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea.

**Seigarrena.-** Erabaki hau kontuhartzaileari eta kirol teknikariari jakinaraztea.

---

Gaia aztertuta eta kirol batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamalau bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

## **10.- EH BILDU udal taldeak aurkeztu duen mozioa, Palestinako herriarekiko elkartasuna erakusteko.**

**Elorza andreak** mozio hau irakurri du:

### **Oñatiko EHBildu Udal Taldearen mozioa: Palestina**

Israelgo auzitegiek Jerusalemgo Sheikh Jarrah auzotik hainbat familia kanporatzeko eta Israelgo estatuko segurtasun indarrek Al-Aqsa meskitaren aurka egindako erasoaren ostean, Palestinako tentsioa gogortu egin zen berriro.

Benjamin Netanyahu Israelgo lehen ministroak asteartean, maiatzak 11, iragarri zuen Israelek Gazaren aurkako erasoak areagotuko dituela, eta dagoeneko 43 pertsona hil direla, horietako hamahiru adingabeak. Zisjordanian gutxienez bi gazte hil dira, horietako bat adingabea. Ildo horretan, azken egunotan ehunka bonbardaketa egin ditu Israelek Gazan. Israelgo armadak 5.000 erreserbista mobilizatu ditu eta iraupen zehaztugabeko erasoaldi baterako prestatzen ari da.

NBEk ohartarazi duenez, indarkeria maila horrek eta horiek Palestinako biztanleengan dituzten ondorioez ohartarazi du.

### **Gertakari horien aurrean, Oñatiko Udalak:**

- Israelek Palestinako herriari egiten dizkion giza eskubideen urraketak salatu ditu. Ildo horretan, nazioarteko komunitateari dei egiten dio erasoaldi militar hori geldiarazteko eta elkarrizketarako eta negoziatorako bideei berriro ekiteko, Mahmud Abbas Palestinako presidentek Europako erakundeekin laguntzarekin Nazioarteko Bake Konferentzia bat egiteko egindako eskaera babestuz.

- Nakbaren 73. urteurrenean, Israelek lurralde palestinarrek legez kanpo okupatzea salatu eta gaitzesten du, eta, aldi berean, elkartasuna eta konpromisoa adierazten du herri palestinarren giza eskubideen defentsarekin, Nazioarteko Zuzenbideak ezartzen duen bezala.

- Palestinarako laguntza humanitaria indartzeko eskatu die euskal erakundeei, pandemiak are gehiago areagotu baitu haien egoera.”

---

**Galdos andreak** gai honi buruz mozio alternatibo bat aurkeztu dutela azpimarratzen du. EH Bilduk aurkeztutako mozioan abstenituko direla dio.

---

Udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamalau bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Mozioa onartu da. Aldeko botoak: 9 (9 EH BILDU) Abstentzioak: 5 (5 EAJ).

### **11.- EH BILDU udal taldeak aurkeztu duen mozioa, Kolonbiako herriarekiko elkartasuna adierazteko.**

**Elorza andreak** mozio hau irakurri du:

#### **EH BILDUren mozioa: KOLONBIAKO EGOERARI BURUZKOA**

Joan den apirilaren 28an, Kolonbiako herria kalera atera zen bizi-baldintza justuak eskatzeko, Ivan Duqueren Gobernuaren zerga-erreformaren aurka eta justizia soziala duen herrialde baketsu baten eskakizunarekin.

Orduetik, mugarik gabeko Geldiadi Nazionalean daude, eta, orduetik, Gobernuaren erantzuna errepresio bortitza izan da protestarako eskubidea legitimoki erabiltzen ari diren pertsonen aurka, bizitza duina eta giza eskubideen errespetua eskatuz.

Sistema demokratiko batean, protesta soziala oinarrizko eskubideetako bat da, eta Estatuak errespetatu eta bermatu behar du.

Herritarren oinarrizko beharrei erantzuteko aukera emango duen zerga-sistema bidezko eta progresibo baten aldeko gizarte-eskaeren aldarrikapen baketsua bermatu behar da, baita Bake Akordioen garapen erreala eta integrala eskatzen duten eskaerena ere, funtsezkoa baita bake egonkor eta iraunkorrerantz aurrera egiteko.

Hainbat plataformaren arabera, Langabezia Nazionala hasi zenetik, poliziaren indarkeria, eraildako eta zauritutako pertsonak, atxiloketa arbitrarioak eta indarkeria sexuala izan dira Indar Publikoaren eskutik. Herrialdeko hirietan etxeko bideoekin grabatutako irudi askok ez dute zalantzarik uzten, eta herritarren aurka su-armak erabiltzen dituen Indar Publiko bat erakusten dute, indarkeriazko eta bereizketarik gabeko errepresioan.

Honen aurrean, ezin gara isilik egon.

Indar polizialak kolonbiarrak erreprimitzen, jazartzen, zauritzen eta hiltzen ari dira, eta, beraz, gogorarazi behar diogu gobernuari bere erantzukizuna dela Giza Eskubideak babestea eta bermatzea, bizitzarako eta segurtasun pertsonalerako eskubidea barne, bai eta bilera baketsua egiteko askatasunerako eskubidearen erabilera erraztea ere.

Horregatik guztiagatik,

- Kaleetan legez protesta egiten dutenen aurkako errepresio basati eta bidegabea salatzen dugu.

- Ivan Duqueren Gobernuari eskatzen diogu Kolonbiako herritar guztien giza eskubideak babesteko eta bermatzeko.
- Indar Publikoak eragindako indarkeria-gertakari guztiak argitzea eskatzen dugu, eta dagozkion erantzukizunak zehaztea, bai haien maila ofizialetan, bai agindu horiek eman dituzten gobernuetan.
- Elkartasuna adierazten diegu protestaren kriminalizazioaren ondorioak jasan dituzten eta jasaten dituzten pertsona guztiei.
- Salatzen dugu indarkeriaren gorakadaren egoera erabiliz, mobilizazioetatik kanpoko taldeek ondasun komunak arpilatu eta erasotzeko erabili izana, bai eta ekintza horiek protesta soziala kriminalizatzeko erabili izana ere.
- Gure elkartasuna adierazten diegu Kolonbiako herriei, eta beren eskaerekin bat egiten dugu bizi-baldintzak benetan hobetzeaz eta justizia soziala duen herrialde baketsu bilakatzeaz hitz egiten dutenak.
- Nazioarteari eskatzen diogu elkartasun adierazpenak egin ditzala Kolonbiako herriarekin, bai eta Ivan Duqueren Gobernuaren aurrean behar diren ekintza diplomatiko eta politikoak egin ditzala ere, errepresioa amaitzeko eta Kolonbiako Herriaren Eskubideak errespetatzeko.”

---

**Galdos andreak**, bere taldea proposaturiko mozioarekin bat datozela dio.

22

---

Udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamalau bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Mozioa zinegotziek aho batez onartu dute.

## **12.- Hala badagokio, larrialdi-mozioak.**

**Galdos andrearen** eskariz, presazko mozio bat gai-zerrendan sartzeko behar diren urratsak egin ondoren, hau da, mozioa arrazoitzea eta bertaratuen gehiengoaren botoa lortzea, mozio hau zerrendan sartzeko erabaki da 14 boto aldekoekin (9 EH BILDU + 5 EAJ).

### **12.1 Oñatiko EAJ-PNV Udal taldearen mozio alternatiboa: ISRAEL-PALESTINA.**

**Galdos andreak** mozio hau irakurri du:

Israelgo Armada eta Hamas eta Yihad Islamikoa milizia palestinarrek borrokan ari dira joan den astelehenetik, maiatzaren 10etik, 200 bat hildako eragin dituen gatazka ireki batean, gehienak Gazako zerrendan Israelgo hegazkinek eta artilleriak egindako bonbardaketen ondorioz.

Liskarrek 2014ko gatazkatik ikusi gabeko indarkeria maila lortu dute, izan ere, Israelgo epaitegiek Jerusalemgo Sheikh Jarrah auzotik eta Israelgo estatuko segurtasun indarrek Al-Aqsa meskitaren erasotik familia batzuk kanporatzen saiatu ostean, Palestinako tentsio-egoera berriz ere gogortu egin zen; izan ere, Israelgo Segurtasun Indarrek 300 palestinar baino gehiago zauritu

zituzten Islandarekin izandako istiluetan, Al Islandaren hirugarren lekuan. Horren ostean, milizia palestinarrek suziriak jaurti zituzten Jerusalem-era eta Israelgo erdialdera.

Benjamin Netanyahu Israelgo lehen ministroak asteartean, maiatzak 11, iragarri zuen Israelek Gazaren aurkako erasoak areagotuko dituela, eta dagoeneko 197 pertsona hil direla, horietatik 58 adingabeak. Ildo horretan, azken egunotan ehunka bonbardaketa egin ditu Israelek Gazan. Maiatzaren 10etik (astelehena), erasoaren lehen lau egunetan, Ezzedin al Qassam brigadetak 3.000 suziri baino gehiago, Hamasen beso militarra eta Yihad Islamikoaren Al Quds brigadak Zerrendatik irten dira Israelgo erdialdera eta hegoaldera, eta 10 zibil hil dira, tartean bi haur. Israelgo armadak 5.000 erreserbista mobilizatu ditu eta iraupen zehaztugabeko erasoaldi baterako prestatzen ari da.

NBE Nazio Batuen Erakundeak ohartarazi du Israelen eta Hamasen arteko indarkeria berehala gelditu behar dela, krisi humanitarioa eta segurtasun eutsiezina eragiteko ahalmena duelako

Gertakari horien aurrean, EAJ Udal taldeak:

1- Bere egiten du Nazio Batuen idazkari nagusiak Israelen eta Hamasen arteko indarkeria berehala gelditzeko egindako deia, eta bi aldeei dei egiten die borrokak geldi ditzaten, indarkeria-espinal handiago batera eraman baititzakete, eta horrek ondorio suntsizaileak izan ditzake bi komunitateentzat eta eskualde osoarentzat.

Ildo horretan, Israelek indarra neurritz kanpo eta eutsi gabe erabiltzearen ondorioz eta Cohetes de Hamas eta beste milizia batzuk eremu zibiletatik modu indiskriminatuan botatzearen ondorioz gertatzen ari diren giza eskubideen urraketak salatzen ditugu; eta Nazioarteko Erkidegoari dei egiten diogu gatazkari amaiera emateko eta elkarrizketa- eta negoziazio-bideei berrekiteko, Mahmud Abbas presidente palestinarrek egindako eskaerari babesa emanaz.

23

2- Nakbaren 73. urteurrenean, Israelek okupatutako lurralde palestinarrek legez kanpo okupatzea salatu eta gaitzesten du, eta, aldi berean, giza eskubideen defentsarekiko elkartasuna eta konpromisoa adierazten du, eta ahaleginak areagotzeko deia egiten du, aldebiko eta alde anitzeko harremanen esparruan, bi estatuen – Israel eta Palestina – Konponbidea lortzeko, 1967ko mugetan oinarrituta eta israeldarren bidezko herritartasun bakarra, israeldarren bidezko herritartasun bakarra, eta israeldarren hiriburutza partekatua bermatzeko.

3- Palestinarekiko ekintza humanitarioa indartzeko deia egin die erakundeei eta gobernuei, pandemiak are gehiago areagotu baitu haien egoera.

---

**Elorza andreak** dio, bere taldeak aurkeztutako mozioarekin egiten dutela aurrera, eta EAJk aurkeztutako mozio alternatiboaren kontra bozkatuko dute, izan ere, gaiari buruz ikuspegi ezberdina dituzte. EH Bilduko mozioak palestindarren alde egiten du eta uste du EAJko mozioak palestinar eta israeldarrak parean jartzen dituela, eta horrekin ez daude ados.

---

Udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamalau bertaratuta, Alkateak bozketa agindu du. Mozioa ez da onartu. Aldeko botoak: 5 (5 EAJ). Aurkako botoak: 9 (9 EH BILDU)

**13.- Apirilaren 24 eta maiatzaren 21 bitartean eman diren alkate dekretuen berri ematea, 417 zenbakitik 541 zenbakira.**

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

**14.- Kontuhartzailearen Erreparo-oharra: Argindar-hornidura kontratuaren berri ematea.**

Kontu-hartzaileak puntua azalduta Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

**15.- 2020ko finantza kontrolaren eta kontu-hartze eginkizunaren laburpen txostenaren berri ematea.**

Kontu-hartzaileak puntua azalduta Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

**16.- 2020ko ekintza planaren berri ematea.**

Kontu-hartzaileak puntua azalduta Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

**17.- 2020ko ekintza planaren egokitasun-txostenaren berri ematea.Galderak eta eskaerak.**

Kontu-hartzaileak puntua azalduta Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

**18.- Galderak eta eskaerak.**

**Galdos andreak** honako hau irakurri eta galdetzen du HAPOko aurrerakinari buruz:

“Ez genuke Osoko Bilkura hau amaitutzat eman nahi HAPOaren Aurrerakinaren inguruan Oñatiko EAJ-PNVk duen kezka azaldu gabe. Horrelako Plan batek herriaren eta herritarren etorkizunean oso garrantzitsua da eta oso kezkatuta gaude Aurrerakina idazteko jarraitu dan prozesuarekin:

la hiru urte pasau dira dagoeneko Oñatiko Udalak, EH Bilduren gobernua buru, herriko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren, HAPOren diagnostikoarekin eta lanketarekin hasi zenetik. Denbora tarte guzti horretan, udal gobernuak Aurrerakin dokumentu bat idatzi du, hain zuzen, plan berriaren hiri-eredua eta ildo estrategikoak planteituko. Aurrerakin hori 2020ko abuztuan argitaratu zen GAOn eta hiru hilabeteko epea zabaldu zen, zehazki azaroaren 13ra arte, Aurrerakiñaren dokumentuari iradokizunak,sugerentziak,ekarpenak egiteko. Oñatiko EAJ-PNV udal taldeak ere iradokizun sorta zabala aurkeztu genuen.

EH Bilduren gobernutik oraindik arrazoitutako erantzunik jaso ez badugu ere, joan den maiatzaren 10ean egindako AURRERAKIÑA aurkezteko saio irekian, planean, gure proposamenetako bat bera ere ez dala kontuan euki ohartu giñen.

Eta horrez gain, erabat kezkatuta gauz, erabaki horiek guztiak, herritarrak behar bezala informatu gabe hartu direlako. Kale ekimenak edota tailer txikiak egin diren arren, Aurrerakina egin eta hori GAOn argitaratu ostean, iradokizunak egiteko epearen baitan, ez zitzaien herritarrei dokumentuaren ulermena errazteko aurkezpenik egin,ez da exposizio publiko bat egin(,planuak) ezta azalpenik eman ere,ondoren iradokizunak AHAL EGITEKO.

Eta jakin dugu gaiñera, maiatzaren 10eko saioaren ostean, Aurrerakiñari buruz azalpenak jaso ondoren, badirela orain iradokizunak egin nahi dituzten herritarrak. Zer egin behar dute oñatiar hauek? Eukiko daue euren hitza emateko eskubidea edota aukeria?



Horregatik, Oñatiko EAJ udal taldeak ondorengo eskaera luzatzen dugu:

- AURRERAKIÑAREN Dokumentua faltsuan ez ixtea
- Aurrerakinaren ulermena errazteko saio ireki gehiago edota erakusketa publiko bat bat ere egitea
- Iradokizunak egiteko epe berri bat zabaltzea
- Oñatiarren zein oposizioaren iritzia eta proposamenak aintzat hartzea.”

---

**Elorza andreak** horri buruz erantzuten dio:

HAPOaren prozesuan, lehendabizi diagnostiko bat egin zen. Diagnostiko hori egiteko herritarren parte hartzea egon zen. Horrekin proposamen batzuk sortu ziren eta herritarrek proposamen horiek bozkatzeko aukera izan zuten. Aholku kontseiluan zinegotziek bere iritzia emateko aukera izan zuten eta guzti horrekin aurrerakina sortu zen.

Aurrerakina jendaurrean egon zen argitaratua, web gunean eta Kontzejupetiken ere, eta interesa izan duenak proposamenak egin ditu. 15-16 proposamen jaso dira. Hirigintza batzordeak aztertuko ditu proposamen horiek banan banan erantzuteko, eta udal taldeen iritzia jasoko da. Aurrerakinarekin batera, proposamen guztiak azaldu eta landuko dira, gero proposamen bat Osoko bilkuran onartzeko. Orain arte, aurrerakina ez dago onartua. Tailer batean jasotako guztiaren berri eman zen eta azpiegituren adibide batzuk eman ziren, baina ez ziren lotesleak. Aurrerakina ildo estrategikoak eta gehiengoak herriarekiko nahi duen norabidea finkatzen dituen dokumentua da, baina gero hasierako onarpena egiterakoan aldaketak egon daitezke. Hurrengo fase batean hobe ausnartu eta landuko da hasierako onarpenaren dokumentua.

---

**Elorza andreak** bere babesa adierazi dio Azpeitiako Alkateari.

25

**Besterik ezean, 19:18ak zirenean, Alkateak amaitutzat jo zuen bilkura, eta esandakoak jasota gera daitezen egin dut agiri hau Alkatearen ontzat emanarekin.**

O.E

**Alkateak**

**Idazkaria**

**Izaro Elorza Arregui**

**Iñigo Roldan Catalan**